



**2018KO IRAILAREN 21EKO
TOKIKO GOBERNU BATZARRA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hemezortziko irailaren hogeita batean, arratsaldeko ordu bi eta erdietan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Ane Irastortza Izagirre, Aitor Altuna Oiarbide, Joseba Imanol Aran Barandiaran eta Marian Zufiria Apeztegia.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutako onespenera aurkezten da 2018ko irailaren 7an egindako bilkurako akta, idatzita dagoen moduan onartzen delarik.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertzen dira. Aztertu ondoren 2018ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 82 zbk.dun fakturen zerrenda, bere espedientean dagoena, BERROGEITA HAMALAU MILA LAUEHUN ETA BERROGEITA HAMABI EURO ETA LAUROGEITA HAMAZAZPI ZENTIMO (54.452,97 €)takoa onartzea erabakitzen da.

Bestalde Udalak Eskuartean Elkarteari bi erraldoi egiteko (Mari eta Basajaun) enkargua egin diolarik, honek aurrekontuaren heren bat aurreratzea eskatu du materialen erosketarako. Aurrekontu osoa, BEZ barne, 14.000€ da. Tokiko Gobernu Batzarrak ontzat ematen du aurrekontuaren herena aurreratzea.

III.- ETXEBIZITZA ETA EKONOMIA JARDUERETAKO DIRU LAGUNTZAK.-

Lazkaoko herrian gazteek etxebizitzak alokatzeko onartutako diru laguntzen 2018ko deialdiaren barruan, oraingoz bi eskakizun egon dira. Bi eskakizun horien azterketatik batak oinarrietako baldintzak betetzen dituela ondorioztatzen da eta besteak ez, zerbitzu teknikoek egindako txostenetatik ondorioztatzen denez. Oinarrietan ezarritako prozedura jarraituz, interesatuei ebazpen proposamenaren jakinarazpena egin zaie alegazioak egiteko 10 egun balioduneko epea emanez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Hau guztia honela izanda, eta ebazpen proposamenak aztertu ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabaki hauek hartzen ditu:

- Alaine Mingo Gonzalez hilean 225,00€ko diru laguntza ematea, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen dituelako.



- Olga Xiomara Alvarado Banegasi diru laguntzarik ez ematea, oinarrietan ezarritako baldintza guztiak ez betetzeagatik (gutxienez 3 urteko etenik gabeko errolda antzinasasuna edo 5 urtekoa beste momentu batean).

IV.- KULTURAKO DIRULAGUNTZAK .-

Kultura batzordeburuak aurkeztutako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- Igone Aramendi Amenabar, Xanu erropa denda.-

2018ko San Prudentzio jaien barruan, apirilaren 21ean antolatutako mozorro lehiaketan, Lazkaoko dendetan erosketa txartelak sari bezala banatu ziren, eta gastatutako 30€ko balioa duten txartelak ordaintzea.

- Amalur elkarte.-

Irailaren 15 eta 16ko asteburuan Esparruko erromeriaren antolaketagatik 470€ko diru laguntza ematea.

V.- EUSKARAKO DIRU LAGUNTZAK .-

Euskara eta hezkuntzako batzordeburuak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakiak hartzen ditu:

- Goierriko Euskal Eskola.-

Gerriko ikerlan sariaren gastuei aurre egiteko, aurreikusitako diru laguntzaren erdiaren ordainketa, hau da, 2.500€, onartzea.

- Goierriko Euskal Eskola.-

Mintzalaguna proiektua garatzeko aurreikusita dagoen diru laguntzaren erdia, hau da, 5.050€ ordaintzea.

VI.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, arratsaldeko hirurak hamar gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

